Idiazabalgo Udala

PRESKRIPZIO TEKNIKOEN PLEGUA, IDIAZABALGO KIROL JARDUEREN ZERBITZUAK ETA BESTELAKO ZERBITZU OSAGARRIAK PROZEDURA IREKIZ ETA IZAPIDETZE ARRUNTEZ ADJUDIKATZEKO

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea Idiazabalgo herritarren bizitza kalitatea hobetzea da, adin guztietarako egokiak diren kirol jardueren programa askotariko baten bidez.

Euskadiko Kirolari buruzko ekainaren 11ko 14/1998 Legearen 6. artikuluak eta Euskadiko Toki Erakundeen apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.1.19 artikuluak emandako eskumenak baliatuz, Idiazabalgo Udalaren Kultura Sailaren barruan bildutako Kirol Zerbitzuak udalerrian jarduera fisikoa eta kirola sustatzeko ahalegina egiten du, eta saiatzen da jarduera horiek herritar guztiengana irits daitezen, edozer direla ere haien ezaugarriak, baldintzak eta interesak. Finean, bizi ohitura osasungarriak sustatu nahi ditu Idiazabalgo herritarren artean.

Plegu honen bidez, Idiazabalgo Udalak udalerriko instalazioetan egingo diren kirol jarduerak planifikatzeko, emateko, gauzatzeko eta ebaluatzeko zerbitzua kontratatuko du. Halaber, hemen sartzen dira haien zerbitzu osagarriak ere, hala nola igerileku irekiaren arreta, sorospen, mantentze, harrera eta garbiketa zerbitzua, baita igerilekuko eta pilotalekuko taberna zerbitzua ematea ere.

Halaber, jardueren garapen didaktikoa estali nahi da, langile tekniko kualifikatuek ematea jardueren saioak, partaidetzarekin lotutako datuak kudeatzea eta jarduera osagarriak garatzeko beharrezkoak diren bestelako jarduketak bermatzea.
Teknikariek modu autonomoan eta planifikatuan gauzatuko dituzte beren egitekoak, eta, saioak eta eskolak planifikatzeaz, zuzentzeaz eta kontrolatzeaz gain, eskainitako zerbitzuak ebaluatzeaz ere arduratuko dira.
Zerbitzuen prestazioa eskaintzeko, kalitate maila egoki bat bermatuko da, betiere Idiazabalgo Udalaren egitekoa eta helburuak errespetatuz eta transmitituz.

Idiazabalgo Udaleko Kultura Sailak ez ditu beharrezko giza baliabide guztiak esandako zerbitzu horiek bere kabuz gauzatzeko eta garatzeko.

Hona hemen kontratuaren xedearen kodea:

EJSN-2009: 93.
Kirol, aisialdi eta entretenimendu jarduerak
CPV kodea: 92600000-7: Kirol Zerbitzuak.
CPV 92610000-0: «Kirol instalazioak ustiatzeko zerbitzuak»

2.- KONTRATUAREN EDUKIA

Programatzen diren kirol jarduerak honako aldi eta instalazio hauetan gauzatuko dira:

a) KIROL JARDUERAK.

Ikastaroak: (urritik ekainera, 35 aste efektibo)
- ZELAAKO KIROLDEGIA: INSTALAZIOAK ETA GIMNASIOA
- 'Gimnasioa 47' MUSKULAZIO ARETOA
- IGARONDO PILOTALEKUA
- AITA IPARRAGIRRE IKASTETXEA
- GURASOEN ELKARTEA
- UDALETXE ZAHARRA
- PLAZA NAGUSIA ETA AIRE ZABALEKO GUNE PUBLIKOAK

Bestelako kirol jarduerak (makina eta muskulazio aretoa, 'Gimnasioa 47'): (Urte osoan, 52,14 aste efektibo).
- 'Gimnasioa 47' MUSKULAZIO ARETOA

Bestelako kirol jarduerak (Izalbira): (urritik ekainera, 35 aste efektibo)
- PLAZA NAGUSIA ETA AIRE ZABALEKO GUNE PUBLIKOAK

b) IGARONDO IGERILEKU IREKIKO SOROSPEN ETA ARRETAKO KIROL ZERBITZUAK, UDA PARTEAN ESKAINIAK (ekainetik irailera, 13 aste efektibo)
- IGARONDO IGERILEKUA (taberna barne)

c) KIROL ORIENTAZIO ZERBITZUA (KOZ-SOAF) (Urte osoan, 52,14 aste efektibo)
- ZELAAKO KIROLDEGIA: INSTALAZIOAK ETA GIMNASIOA
- IGARONDO IGERILEKUA
- PLAZA NAGUSIA ETA AIRE ZABALEKO GUNE PUBLIKOAK

3. GAUZATU BEHARREKO JARDUEREN ETA ZEBITZUEN DESKRIBAPENA

Idiazabalgo Udalaren Kultura Sailak zuzenduko eta ikuskatuko ditu eskainiko diren jarduerak eta zerbitzuak. Antolatutako jardun horrek honako helburu hauek lortu beharko ditu:

- Ikasleek jardueraren teknikak ikastea, betiere ikasleen gogobetetzea lehenetsiz, errendimenduaren gainetik.

- Kirola praktikatzearen plazeraz eta aisiaz gozatzea, baita giza harremanak sustatzea ere.

- Osasuna, ongizatea eta bizitza kalitatea hobetzeko modu bat izatea, Idiazabalgo herritarrek garapen fisikoa lortu eta gorde dezaten, betiere beren gaikuntzarekin, beharrizanekin eta interesekin egokien den moduan.

- Kirol jarduerarik praktikatzen ez duten pertsonak poliki-poliki animatzea, jarduera fisikoa praktikatzeko ohiturak har ditzaten, batez ere taldekoak.

Jarduera ildo horretan, adjudikaziodunak honako funtzio hauek garatu beharko ditu:

1) Zerbitzuen plangintza egitea, kirol zerbitzuen eta jardueren programazio egokia prestatuta.

2) Programazio hori gauzatzea eta Idiazabalen egiten diren beste kirol programa eta zerbitzu batzuekin koordinatzea. (Zelaako kiroldegia erabiltzeko ordutegiari dagokionez, adjudikaziodunak errespetatu egin beharko du eskola jardueren, eskolaz kanpokoen eta eskola kirolaren lehentasuna, kiroldegia eta gimnasia aretoa erabiltzeari dagokionez).

3) Hona hemen kontratu honen xede diren jarduera zehatzak:

a) **Kirol jarduerak**

Kirol ikastaroak: 875 ordu urtean.
Kontratazio organoak onartutako edozer modalitate.

Gutxi gorabehera, hauek dira gaur egun eskaintzen diren jarduerak:
Hirugarren adinekoentzako gimnasia: 2 ordu astean, 70 ordu ikasturtean. Gaur egun, talde bakarra.
Pilates: 2 ordu astean, 70 ordu ikasturtean. Gaur egun, bi talde.
Yoga: 3 ordu astean, 105 ordu ikasturtean. Gaur egun, talde bakarra.
Zumba: 2 ordu astean, 70 ordu ikasturtean. Gaur egun, talde bakarra.
CrossFit: 2 ordu astean, 70 ordu ikasturtean. Gaur egun, talde bakarra.
Hipopresiboak: 2 ordu astean, 70 ordu ikasturtean. Gaur egun, talde bakarra.
Spinning: 2 ordu astean, 70 ordu ikasturtean. Gaur egun, hiru talde.
Gaztefit: 2 ordu astean, 70 ordu ikasturtean. Gaur egun, talde bakarra.

Gainera, honako kirol jarduera hauek ere eskaintzen dira:
Begirale zerbitzua, 'Gimnasio 47' makina eta muskulazio aretoan. 2,5 ordu astean, 130,35 ordu ikasturtean.
Begirale zerbitzua, Izalbira ibilbidean: 1,5 ordu astean, 52,5 ordu ikasturtean.

b) **Igarondo igerileku irekiko sorospen zerbitzua eta sarrera-irteeren kontrola (taberna barne): 63 ordu astean (9 ordu egunean), 819 ordu urtean.**

c) **KOZ-SOAF (Kirol Orientazio Zerbitzua-Servicio de Orientación para la Actividad Física): 6 ordu astean, 312,84 ordu/urtean**

d) **Idiazabalgo Udaleko Kirol Zerbitzuaren aholkularitza teknikoa: 3 ordu astean, 78,21 ordu/urte bakoitzean eta bi loteetan aplikatuko da**

Nolanahi ere, zerbitzuen eskaintza aldatu egin daiteke erabiltzaileek eskatutako jardueren eta zerbitzuen arabera; ondorioz, baliteke kontratua bera ere aldatzea, honako zerbitzu hauek biltzeko:

- Kirol modalitate berritzaileak.
- Gimnasia terapeutikoa.
- Uretako jarduerak (uda-partean), hala nola aquarobica, aquagima, aquatrainninga, waterpoloa…
- Kirola, jarduera fisikoa eta kultura, gizarte zerbitzuak eta osasuna, berdintasuna eta/edo turismoa eta garapen ekonomikoa uztartzen dituzten jarduerak.

- Kirol Orientazio Zerbitzuak (KOZ-SOAF) gomendatutako beste batzuk, betiere Udalak aldez aurretik onartuta (esaterako, familiako kirol jarduerak, aire zabaleko kirol eta jolas jarduerak, eta abar).
- Kirol Orientazio Zerbitzuaren (KOZ-SOAF) ordu kopurua areagotzea.
- Kirol ikastaroen eta bestelako kirol jardueren orduak ugaritzea.

- Adjudikaziodunak proposatutako beste hainbat, betiere Udalak aldez aurretik onetsita.

- Udalak zehazten dituen beste hainbat.

4) Kontratua formalizatzeko garaian eta hilero-hilero, adjudikaziodunak zerbitzu programa bat aurkeztu beharko du, honako hauek bilduz:

1. Jarduera, ikastaro edo zerbitzu bakoitzaren egutegia eta ordutegiak.
2. Helburuak, edukiak eta metodologia.
3. Jarduera, ikastaro edo zerbitzu bakoitzaren arduraduna, haietako bakoitzak dituen egitekoen banakapena barnean hartuta.

Halaber, hilabete bakoitzaren amaieran, adjudikaziodunak **kudeaketa txosten** bat prestatuko du, eta Idiazabalgo Udaleko Kultura Sailari igorriko dio. Txosten horretan, honako alderdi hauek jaso beharko dira gutxienez:

- Programan aurkeztutako hasierako proposamenak izandako aldaketak edo egokitzapenak.
- Izandako gorabeherak eta nola kudeatu diren.
- Programetan izandako erabiltzaileen asistentzia datuak, sexuaren eta adin tarteen arabera banatuta.

- Kirol jardueren eta zerbitzuen bilakaera, ebaluazioarekin eta hobetzeko proposamenekin batera.
- Kirol espazioen kudeaketa, 5. atalean jasotako moduan.

Arau hauste astun izango da prestazio horiek epearen barruan eta esandako forman ez egitea.

5) Espazioen kudeaketari dagokionez
Kudeaketaren barruan sartzen da (orduak eta egunak), espazio publikoetan garatzen diren jarduerak: Zelaako kiroldegiaren areto polibalentea (rokodromoa, kantxa eta gimnasioa), Gimnasio 47 eta Igarondo pilotalekua.

Erreserbak, sarbide publikoak kudeatzeko aplikaziotik egingo dira (azpiegiturak.izaldarrok.eus). Idiazabalgo Udalak instalazioetara sartzeko giltzak banatuko ditu. Espazio publikoetan sartzeko giltzak eskuratu aurretik, erabiltzaileek dagokion udal tasa edo prezioa ordaindu beharko dute.

Gimnasio 47 makina eta muskulazio aretoari dagokionez, adjudikaziodunak makinen ohiko mantentze lanak egingo ditu (makinak puntuan ipintzea, materiala antolatzea, txukuntzea eta abar), eta gertaerarik larrienen berri emango du, Udalari makina berriak hornitzeko proposatuz.

6) Igarondo igerilekuari dagokionez, adjudikaziodunak honako zerbitzu hauek hartuko ditu bere gain:
Harrera
Garbiketa eta hondakinak kudeatzea
Sorospena
Taberna
Autokontrol Planaren mantentze lanak eta kudeaketa

Instalaziook ekainaren erditik irailaren erdira egongo dira irekita publikoarentzat, 11:00etatik 20:00etara (13 aste). Idiazabalgo Udalak onartuko du data zehatza, kontratistaren proposamenez (nahiz eta loteslea izan ez proposamen hori).

Publikoari ateak ireki aurretik, adjudikaziodunak igerilekuko ontzia garbitu beharko du, baita gainerako instalazio osagarriak ere, igerilekua erabilera baldintza bikainetan uzteko eta, hala, Osasun Sailak dagokion ikuskaritza egin eta irekitzeko baimena eskuratzeko. Era berean, autokontrol plana eta eguneratzeak berrikusi beharko dira, eta datu horiek guztiak jasota geratu beharko dira horretarako prestatutako txantiloietan.

Esleipendunak gaituta egon beharko du autokontrol plana aplikatzeko, baita higienearekin eta osasunarekin lotutako gainerako baldintzak eta teknika egokiak aplikatzeko ere, bai makina aretoan, bai barrutiko instalazioetan. Eta horiek guztiak dagozkion higiene, egokitze eta konfort baldintzetan eduki beharko ditu.

Adjudikaziodunak, aldi horren barruan, arreta egokia eskainiko du zerbitzu bakoitzean (sorospena eta arreta).

Denboraldia amaitzen denean, adjudikaziodunak garbitu egin beharko ditu instalazioak, eta baldintzarik onenetan utzi.
Publikoari ireki aurretik eta ostean egindako garbiketa lanak adjudikaziodunaren bitarteko tekniko propioak baliatuta egin beharko dira.

Idiazabalgo Udalak berea du instalazioak uda partean martxan ipintzeko eguna finkatzeko eskumena (ekainetik irailera bitartean), eta adjudikazioduna konpentsatu egingo du, baldin eta denboraldirako finkatutako epea gaindituko balitz (13 aste). Konpentsazio hori kalkulatzeko, modu proportzionala baliatuko da eguneko, eta kontratuaren aldaketa puntual gisa izapidetuko da.

Gutxienez presente izan beharreko langileak, publikoari irekita dagoenean:
- Sorospena: sorosle bat, igerilekua irekita dagoen egun eta ordu guztietan.
- Harrera: pertsona bat, igerilekua irekita dagoen egun eta ordu guztietan.

6.1 Zerbitzuen funtzioak.

Oro har, gertatu bezain pronto eman beharko da gertakarien berri, haien neurriaren arabera, eta honako arduradun hauek jarri beharko dira jakinaren gainean:
- Mantentze lanak, matxurak, garbitasuna eta lorezaintza: Udal Brigada.
- Harrera, eta Autokontrol Planaren kudeaketa: Kultura Saila.
- Hondakinen kudeaketa: Sasieta Mankomunitatea eta Kultura Saila.
- Larrialdiak: 112 eta Kultura Saila.

Sorospena.
a) Igerilekuen barrutia zaintzea eta ikuskatzea, eta bertako zerbitzuak artatzea. Igerilekuko diziplina soroslearen eskumen izango da, Kiroletako Udal Zerbitzuko Erregelamenduak dioenari jarraikiz. Sorosleek igerilekuan egon beharko dute instalazioa irekitzeko ordua baino hamar minutu lehenago.
b) Langileok uneoro egon beharko dute identifikatuta sorosle gisa, eta, horretarako, kontratistak jantzi egokiak eman beharko dizkie, «Soroslea» hitza irakurtzeko moduan dela.
c) Erabiltzaileen segurtasuna zaintzea, salbamendu eta laguntza zerbitzua eskainiz beharrezkoa den kasu guztietan. Sorosleak artatuko ditu igerilekuaren barrutian gertatzen diren lesio guztiak, eta erregistratu egingo ditu gertatzen diren salbamendu, gorabehera eta istripuen parteak. Halaber, erabiltzaileen zenbaketa egingo du puntako orduetan.
d) Sorosleak izango dira botika kutxa kontrolatzeko arduradun, eta haiek izango dute bertako material eta sendagaien erantzukizuna ere. Era berean, haiek arduratuko dira larrialdietako zerbitzuei deitzeaz, egoerak laguntzeko aukerak gainditzen dituenean eta ezin duenean sorosleak instalazioan bertan lagundu.
e) Saiatuko da erabiltzaileek arauak errespeta ditzaten. Soroslearen erantzukizunak igerilekuen barrutia hartzen du, eta haren lana ez da mugatuko ikuskaritzara edo modu pasiboan itxarotera, esku hartzea eskatuko duen zerbait gertatuko ote den zain. Kontu egingo du betetzen direla arauak, espazioen aprobetxamendua, igeriketa askea modu homogeneoan

gauzatzen dela, eta, oro har, betetzen direla igerilekuko arau orokorrak.
f) Sorosleek konpromisoa hartzen dute gauzatuko dutela prestatutako autokontrol plana, ezarritako irizpideei jarraikiz.
g) Kontrolatuko dute ez dela gainditzen igerileku ontziko plaza kopurua (120 pertsona).
h) Kopuru hori gaindituko balitz, debekatu egingo dute inor gehiago sartzea, edo aginduko dute hustu dezatela, beharrezkoa izanez gero, baita baldintza meteorologiko txarrek hala eskatzen dutenean ere.
i) Udal Kirol Zerbitzuaren Erregelamenduan jasotako bestelakoak.

Harrera.
a) Instalazioak irekitzea eta ixtea publikoari irekitzeko ordutegian.
b) Erabiltzaileen eta abonatuen sartu-irtenak kontrolatzea.
c) Denboraldiko bonu eskaerak kudeatzea; hor barnean sartzen dira izena emateko orriak eskura ipintzea, jasotzea eta udaletxera eramatea, eta bonuak entregatzea, prestatu ostean.
d) Eguneko sarrerak kudeatzea; hor barruan sartzen dira sarrera salmentak, kobrantzak, erregistroa eta udaletxera informazioa eramatea (astean behin), erregistroari eta dirutan jasotako zenbatekoari buruz.
e) Instalazioaren erabilera eta kontserbazio ona zaintzea, udal erregelamendua betearaziz.
f) Erabiltzaileek instalazioak nola erabiltzen dituzten kontrolatzea.
g) Instalazioetan gertatzen den edozer anomaliaren berri ematea, baita erabiltzaileekin sortutako arazoak jakinaraztea ere.
h) Galdutako objektuak biltzea, zaintzea eta udaletxera eramatea.
i) Iragarkiak eta deiak egitea megafonia bidez.
j) Kontrolatzea ez dela gainditzen igerilekuko ontzian sartzeko plaza kopurua (120 pertsona), ezta instalaziokoa ere (280 pertsona).
k) Kopuru hori gaindituko balitz, debekatu egingo dute inor gehiago sartzea, edo aginduko dute hustu dezatela, beharrezkoa izanez gero, baita baldintza meteorologiko txarrek hala eskatzen dutenean ere.

Garbiketa eta hondakinak kudeatzea
a) Dutxak, komunak eta aldagelak gutxienez egunean bitan garbitzea: behin instalazioak ireki aurretik (amaituta egon beharko du ordurako), eta beste behin 17:00etan.
b) Jendaurrean jarriko da egindako garbiketen kontrol erregistroa, eta data, ordua eta garbitzailearen kodea zehaztu beharko dira.
c) Erabiltzaileek sortutako hondakinak gaika biltzea sustatzea, neurri ertaineko hainbat edukiontzi puntu eskura ipinita.
d) Hondakinak egunero-egunero bilketa puntuetara eramatea, Sasietako Mankomunitateko teknikariekin adostutako egunetan.
e) Ontzi biodegradagarrien edota berrerabilgarrien erabiltzea sustatzea (edalontziak, ontziak...).

Autokontrol Planaren mantentze lanak eta kudeaketa
a) Instalazioa prestatzea.
b) Igerilekuko ontzia egunero garbitzea eta desinfektatzea (barrena garbitzeko gailua

pasatzea).
c) Iragazkiak garbitzea eta aldatzea.
d) Sor litezkeen matxurak konpontzea.
e) Kloroaren eta pH-aren parametroak kontrolatzea.
f) Instalazioaren autokontrol plana betetzea dagokion atalari begira; fitxa horretan erregistratuko dira datu guztiak, baita gertatzen diren gorabehera guztiak ere.
g) Uraren analisia.
h) Argiak piztea eta itzaltzea.
i) Igerilekuko hondartza garbitzea eta desinfektatzea.
j) Igerilekuko ertzak eta saretak garbitzea eta desinfektatzea.
k) Aldagelak eta dutxak garbitzea eta desinfektatzea.
l) Instalazioan gertatzen den edozer anomaliaren berri ematea.
m) Igerilekuko ontziaren kanpoko sareta garbitzea, hamabostean behin.
m) Autokontrol planeko datuak biltzea, indarrean diren araudiek eskatzen dituzten maiztasunez eta formaz (egunero).

Enpresa adjudikaziodunak kontratutako langile guztiek izan beharko dute nahitaezko titulazioa erabili beharreko produktuak manipulatzeko. Titulazio horrek ofizialki aitortutako zentro batek emana izan beharko du.

Kontrol sistema
1. Proposatutako antolaketaren barruan, adjudikaziodunak dispositibo bizkorrak izan beharko ditu, Udalak eskatzen dituen datu guztiak garaiz emateko, zerbitzuari buruz egoki iritzitako kontrol guztiak egin ahal izan ditzan.
2. Idiazabalgo Udalak etengabe ikuskatuko eta zainduko ditu kontratutako zerbitzuak. Kontratistak egunero aurkeztu beharko du egindako lanen eguneko partea, baita zerbitzuan gertatzen diren gainerako inguruabarrena ere, eta behartuta egongo da beharrezko dokumentu guztiak aurkeztera obligazio hau betetzeko, arreta berezia ipiniz gizarte aseguruei, lan istripuei eta aseguru polizei.
3. Adjudikazioduna behartuta geratzen da, era berean, Udalak kontrata honetako zerbitzuekin lotuta agindu adina txosten eta azterketa egitera, baita igerileku irekietako instalazioen autokontrol plana betetzera ere.
4. Erabiltzailek zerbitzua jaso aurretik ordaindu beharko dute udal prezio publikoari dagokion zenbatekoa.

6.2 Idiazabalgo Udaleko Igarondo igerilekuari (eta tabernari) atxikitako materiala

Instalazio finko guztiez gain, honako hauek ere bai:

Uraren kalitatea neurtzeko aparailua, GUARDIAN 2.
Bi kloro dosifikagailu.
Ontziaren barrena garbitzeko robota, TYPHOON PRO REF: 3185. Serie zk.: 10250692 (2006)

Material lagungarria:
Oxigeno ekipamendua duen materiala.
Oxigeno konprimatu medizinala duen ekipamendua (botila).
Bizkortze ekipamendua (maleta).
Anda finkoa.
Anda eramangarria.

INKEL musika ekipamendua.
Terrazako plastikozko aulkiak: 30
Mahaiak: 10

Udalak prekarioan lagako dio kontratistari adjudikazio honetako xede diren funtzio guztiak garatzeko beharrezko material guztia.
Adjudikaziodunak elementuon guztion inbentario bat egingo du, Udalarekin batera. Une horretatik aurrera, adjudikazioduna izango da erabilera onaren eta kontserbazioaren arduradun. Elementuotan izan daitekeen edozer anomalia jakinaraziko zaio Udalari.

Kontratistari dagozkio ohiko konponketa eta garbiketa gastuak, baita ezohiko konponketa lanak eta inbertsio txikia ere. Gastu horietarako, adjudikaziodunak urteko zenbateko finko bat edukiko du, Udalak kontratuaren barruan finkatuta. Zenbateko horren barruan sartzen dira igerilekuaren mantentze lanak egiteko beharrezko produktu guztietarako gastuak, baita autokontrol plana betetzearekin lotuak ere. Udalari dagokio balioestea zer beste mantentze lan eta inbertsio handiago behar diren instalazioan une bakoitzean. Udalak hartu ditu bere gain inbertsio handiago horiek, Udalaren Zerbitzu Teknikoek aldez aurretik txostena eginda, nola eta ez diren kontratistaren erabilera arduragabearen edo desegokiaren emaitza. Hala baldin bada, azken horrek hartuko ditu bere gain.

6.3. Monitoreak

- Jarduera emateko, beharrezko ezagutzak, trebetasunak eta abileziak izan beharko dituzte.
- Puntuan agertu beharko dute jarduerak emateko tokietara.
- Ezingo dira barrutitik irten zerbitzua edo jarduera emateko ordutegian.
- Zerbitzua emateko, identifikatuta eta egoki jantzita agertu beharko dute, kirol arropekin eta oinetakoekin, eta kontrolatu beharko dute erabiltzaileek ere jantzi eta oinetako egokiak dituztela.
- Jarduera gauzatzeko arduradun zuzena da, eta portaera desegokiak kontrolatu behar ditu, monitorearen eskuliburuak zehaztutako moduan.
- Ikasleen segurtasuna zaindu beharko du, gorabeherei erantzuteko ezarritako protokoloari jarraituko dio eta bermatuko du guztiek parte hartzen dutela.
- Zerbitzuko kirol materiala gorde eta zaindu behar du.
- Ez ditu transmititu edo piztu behar kirol filosofiarekin bat ez datozen jarrerak, ideiak edo kontzeptuak, bereziki aniztasunarekin, integrazioarekin eta generoarekin lotuta.
- Instalazioetako arduradunen jarraibideak errespetatu behar ditu.
- Udalaren garbiketa zerbitzuekin koordinatuta jardun behar du.

7. Taberna zerbitzuak

Igarondo igerilekuko taberna zerbitzua uda denboraldian egongo da irekita, eta igerilekua bera irekita dagoen ordutegi berean.
Pilotalekuko taberna zerbitzua irekita egongo da jendetza handiena dagoen ordutegietan (astegunetan, iluntzetan, eta larunbatetan, berriz, goiz eta arratsalde; igandeetan, eguerdi artean nahitaez egongo da irekita, eta aukeran egongo da arratsaldez irekitzea). Ordutegi hori Udalarekin adostuko da, kontratuaren lehendabiziko hilabetean.

Denboraldia amaitzean, kontratistak haietako bakoitzaren emaitzen kontuak azalduko ditu. Era berean, Udalari kanon bat ordainduko dio zerbitzuongatik (gutxienez 1.000 € urtean), eta gorantz hobetu ahal izango da (eskaintza hori kontratuaren prezioaren barruan balioetsiko da).

Pilotalekuaren kasuan, kontratista behartuta egongo da komunak, tabernaren instalazioa eta mahai eta aulkien gunea egunero garbitzera.

Pilotalekuan kirol ekitaldiak antolatzen direnean edo Udalak baimendutako ekitaldiak direnean, kontratistak kontrolatu beharko du tabernako bezeroak ez direla sartzen edariekin harmailetara edo pistara bertara, eta ez dutela uzten kontsumizioarekin lotutako inolako hondakinik. Kontratistak bere gain hartuko du hondakin horiek garbitzeko eta husteko lana, halako egoeraren bat gertatuko balitz.

Honako hauek izango dira kontratistaren oinarrizko obligazioak:
Kontratuaren xede den zerbitzua ematea, horretarako lokalak eta instalazioak funtzionamenduan ipinita.
Adjudikaziodunak kontratuak irauten duen bitartean emango du zerbitzua.
Eraikuntzak eta instalazioak kontserbatzea eta funtzionamendu eta higiene egoera bikainean edukitzea, harik eta kontratua bukatzean entregatu behar dituen arte, zerbitzua egokiro emateko beharrezkoak eta berezkoak diren instalazio guztiekin.
Zerbitzuaren erabilera onartzea araudietan zehazturik dauden eskakizunak betetzen dituen orori.
Hirugarrenei erantzutea zerbitzua ematean eragin daitezkeen kalteen inguruan.
Egoera bikainean edukitzea Idiazabalgo Udalak emandako altzariak eta tresneria. Zerbitzua ematen hasi aurretik, inbentario bat egingo da.
Zaindu beharko dute lehiaketa honen xede zerbitzuak ematen diren instalazioetako erabiltzaileek egokiro baliatzen dituztela zerbitzuok, eta une oro zainduko dute haien segurtasuna.
Zerbitzu publikoa Idiazabalgo Udalak zehaztuko moduan ematea.
Zerbitzua ematen duten pertsonak behar bezala identifikatuta eta uniformatuta egongo dira, eta adjudikaziodunaren kargu izango dira uniformeok eta langileek lanerako behar duten gainerako materiala.

Obligazio horietakoren bat hautsiz gero, kontratua etengo da, eta kontratistak ez du izango eskubiderik kalte-ordainik jasotzeko.

4. LANGILEAK

1. Kontratu honen xede diren zerbitzuak garatzeko, adjudikaziodunak izendatuko ditu behar diren eta prestakuntza egokia duten langileak, eta hura arduratuko da langileon prestakuntzaz eta perfekzionamendu teknikoaz; hala, etengabe birziklatuko ditu langileok, teknika eta programa berriak txertatzeko, guztia ere erabiltzaileen mesedetan.

Begirale titulua izan beharko dute, eskainiko duten kirol espezialitatean, dagokion federazioak emana –edo entitate analogoek, baldin eta kiroleko ez den jarduera fisikoa baldin bada–. Titulu horiek izan ezean, honako titulazio hauek aurkeztu ahalko dira haien tokian: Kirol eta gorputz jarduerak sustatzeko goi mailako teknikaria, irakasle eskolako diploma titulua (gorputz heziketako espezialitatean) edo Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua; edo horien baliokideak.

Igerilekuko jardueren kasuan, ezinbestekoa izango da igerilekuko begirale titulua izatea, dagokion federazioak emana. Kasu horretan, ezingo da ordezkatu goragoko beste batekin, nola eta ez den igeriketako kirol teknikaria edo igeriketako goi mailako kirol teknikaria; edo horien baliokideak.

Sorosleek nahitaez izan beharko dute uretako sorosle titulazioa, Salbamendu eta Sorospen Federazioek edo Gurutze Gorriak emanda, edo Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak igerilekuetarako onartutako besteren bat, bestela. Bi urtetik behin eguneratuta egon beharko da, edo indarrean den legeriak une bakoitzean zehazten duen denboratik behin; edo horien baliokideak.

Kirol Orientazio Zerbitzuko (KOZ-SOAF) langileek nahitaez izan beharko dute unibertsitate titulazioa: Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua, edo horren baliokidea. Balioetsiko da pertsona horrek Izalbira ibilbideko begirale funtzioak bere gain hartzea, eta Gimnasioa 47 makina eta muskulazio aretoko begirale ere izatea.

Idiazabalgo Udaleko Kirol Zerbitzuaren aholkularitza teknikoaren zerbitzuko langileek nahitaez izan beharko dute unibertsitate titulazioa: Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua, edo horren baliokidea.

Egokiro egiaztatu beharko dira hasierako langileen kualifikazioa eta haien ordezkoena.
Idiazabalgo Udalak berea izango du langileak baztertzeko eskubidea, ez baditu egokitzat jotzen langileok zerbitzua emateko, ikusirik ez dutela egiaztatu eskatutako titulazioa edo justifikatutako bestelako edozer arrazoi dela eta, betiere aldez aurretik adjudikazioduna jakinaren gainean ipinita.

Adjudikaziodunak zaindu behar du bere langileek badutela eskatutako titulazioa, eta betetzen direla zerbitzuaren kalitate estandarrak. Ordezkapenak aldez aurretik jakinaraziko zaizkio Idiazabalgo Udalari.

2. Egiteko bakoitzera atxikitako langile espezifikoez gain, adjudikaziodunak koordinatzaile bat izango du zerbitzu eta jarduerak gauzatzeko, eta huraxe izango da langileei aginduak eta argibideak emango dizkien bakarra.

Koordinatzaileak berehala jakinaraziko dizkio Idiazabalgo Udaleko kontratuaren arduradunei (Kultura Saila) gertatutako gorabehera bereziak, eta etengabeko segimendua egingo du garatu beharreko funtzioen aplikazio praktikoaren gainean. Halaber, desbideratze posibleak zuzenduko ditu, eta ebaluazio jarraitua egingo.

3. Adjudikazioduna behartuta dago lan esparruan, gizarte segurantzan, desgaitasunak dituzten pertsonak gizarteratzean eta laneko arriskuen prebentzioaren alorrean indarrean den araudia betetzera, honako lege testu hauek diotenarekin bat: Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legea; urtarrilaren 30eko 171/2004 Errege Dekretua, aurreko lege horretako 24. artikulua garatzen duena enpresa jarduerak koordinatzeari dagokionez; urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuak onartutako Prebentzio Zerbitzuen Erregelamendua, eta indarrean den gainerako legeria.
Gainera, adjudikaziodunak honako hauek aurkeztuko dizkio Idiazabalgo Udalari, kontratua formalizatu aurretik:
 Langileen zerrenda: NANa, izen-abizenak, lanbide kualifikazioa eta eskatutako hizkuntza eskakizuna (dokumentazioa aurkeztuta edo Kultura Sailak esandako proba gainditu duela egiaztatzen duen agiriarekin). Zerrenda horretan, kontratutako enpresaren prebentzio arduradun bat ere izendatuko da.
 Langileek dagozkien norbera babesteko ekipamenduak jaso dituztela egiaztatzen duen agiria, baita haien erabilera ere.
 Kanpoko prebentzio zerbitzuarekin indarrean den kontratua edo prebentzio zerbitzu propioa osatuta dagoela egiaztatzen duten agiriak, baita Lan Agintaritzak emandako egiaztapenaren indarreko kopia ere.
 Kanpoko prebentzio zerbitzuak emandako ziurtagiria, adieraziz egin dela zerbitzuen arrisku ebaluazioa.
 Langileen gaitasun egoeraren kopia, Osasun Ikuskaritzaren bidez egina.
 Zerbitzuan baliatu beharreko makinen eta ekipamenduen zerrenda, haiei buruzko adostasun adierazpena atxikita.
 Lanean eta zerbitzuan hartu beharreko prebentzio neurri espezifikoen eta arrisku prebentzioaren alorreko prestakuntza ziurtagiriak, baita langileek jasotako arrisku informazioaren kopia bat ere.
 Erantzukizun zibileko poliza (350.000 €) eta ordainketaren egoera.
 Laneko arriskuen prebentzioaren alorrean eskatzen den dokumentazio guztia.
Zerrendatutako dokumentazio hori guztia eguneratu egin beharko da aldaketarik izanez gero, edo, hala badagokio, kontratu harreman berri bat hasiko da, kontratazio organoak aldez aurretik baimena emanez gero.
Laneko Arriskuak Prebenitzeko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 42. artikuluan zehaztutakoari jarraikiz, enpresariek ez badituzte betetzen laneko arriskuen prebentziorekin lotutako obligazioak, administrazioaren erantzukizuna agertuko da, eta, hala badagokio, erantzukizun penalak eta zibilak ere bai, ez-betetze horren ondorioz izan litezkeen kalte eta galerak direla eta.
Era berean, kontratistak ez baditu betetzen klausula honetan laneko arriskuen prebentzioari buruz aurreikusitako xedapenak, eten egingo da kontratua.

4. Enpresa adjudikaziodunean zerbitzuak ematen dituzten langileen kasuan, inoiz ere da ulertuko lan eta kontratu harremanik dutenik Idiazabalgo Udalarekin, ez eta bestelakorik ere, eta adjudikaziodunak behar bezala informatuta eduki beharko ditu langile horiek inguruabar horri buruz. Hala, berariaz agertuko da jasota kontratuetan.

5. KONTRATUA GAUZATZEKO HIZKUNTZA IRIZPIDEAK ETA BETE EZEAN EZARRIKO DIREN ZIGORRAK

Kontratistak, eta, hala dagokionean, azpikontratistak bi hizkuntzen koofizialtasuna zainduko dute kontratua gauzatzeko aldian (euskara eta gaztelania), eta jarduera horretan errespetatu egingo dira elebitasun irizpideak eta herritarren hizkuntza eskubideak, guztia ere honako lege testu hauetan ezarritakoari jarraikiz: Euskal Herrirako Autonomia Estatutuaren 6. artikulua; Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Legea; Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzeko apirilaren 15eko 86/1997 Dekretua; eta kontratuaren indarraldian Idiazabalgo Udalak onar lezakeen plana.

Nolanahi ere den, elebidunak izango dira kontratistak oro har egindako komunikazio guztiak, baita azpikontratistak egindakoak ere, kontratuaren xede diren prestazioak garatzearekin lotuta. Komunikazio orokortzat hartzen dira:
- Errotulazioa eta seinaleztapena.
- Informazioak, publizitatea, iragarkiak eta zerbitzuak eskaintzeko dokumentazioa.
- Megafonian emandako komunikazioak.
- Oro har, herritarrak hartzaile dituzten bestelakoak.

Kirol jarduera bateko taldekide guztiak hizkuntza bateko hiztunak baldin badira eta haiek hala nahi badute, ikastaroa hizkuntza horretan eman ahalko da.

Begiraleen hizkuntza eskakizunak: B2 (Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratua). Dokumentuak egiaztatu ezean, Udaleko Kultura Sailak egingo du dagokion proba.
Enpresaren batek proposatutako pertsonak ez balu egiaztatuko eskatutako maila, beste pertsona bat aurkeztu ahalko dute haren tokian, astebeteko epearen barruan.
Azken horiek ere ez balute egiaztatuko euskara maila, Udalak indargabetu egin ahalko du esleipena, eta ez du batere kalte-ordainik ordaindu beharko horregatik.
Ordezkoek eskatutako euskara maila egiaztatu beharko dute.

Puntu honetan ezarritako hizkuntza irizpideak bete ezean, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 1eko penalizazio bat ezarriko da, BEZa barne, nola eta kontratazio organoak ez dion irizten, behar bezala arrazoituta, ez-betetze hori astuna edo oso astuna dela. Azken kasu horietan, penalizazioa % 5 edo % 10ekoa izango da, hurrenez hurren.

6. DATU PERTSONALEN BABESA

Kontratazio honen bitartez datu pertsonalak eskuratzen badira, kontratatzaileak SPKLren Hogeita Bosgarren Xedapen Gehigarrian adierazitakoak bete beharko ditu, 2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta eskubide digitalak bermatzekoa eta hori garatzen duten arauetan xedatutakoak biltzen baitira bertan.

7. ZERBITZUAK EMATEKO KONTROLA, SEGIMENDUA ETA IKUSKAPENA

Idiazabalgo Udalak egingo du zerbitzua emateko kontrola, segimendua eta ikuskapena. Halaber, helarazi dizkioten jarraibide guztiei erantzungo die, eta gauzatu ere gauzatuko ditu. Gaiaren arabera, hauek izango dira teknikari arduradunak:

- Mantentze lanak, matxurak, garbitasuna eta lorezaintza: Udal Brigada.
- Tasak, prezio publikoak, esku-dirua garraiatzea: Udal diru biltzailea.
- Harrera, kirol jarduerak eta Autokontrol Planaren kudeaketa: Kultur teknikaria
- Izen emateak kudeatzea eta eramatea, galdutako objektuak: Herritarren Arretarako Zerbitzua (HAZ-SAC).
- Gizarte zerbitzuekin, berdintasunarekin eta osasunarekin lotutako zerbitzuak: Gizarte Zerbitzuetako teknikaria.
- Turismoarekin eta garapen ekonomikoarekin lotutako zerbitzuak: Garapen ekonomikoko eta Turismoko teknikaria.
- Mantentze lanen eta inbertsioen balioespena: Hirigintzako teknikaria.

Kultur teknikaria arduratuko da beti koordinazioaz.

Udala honako egiteko hauetaz arduratuko da:
a) Jardueren sustapena, publizitatea eta toki zabalpena egiteaz, adjudikaziodunaren lankidetzarekin, hala dagokionean.
b) Tasa eta prezio publikoak kobratzeko kudeaketa administratiboaz. Kontratistak informazio eta lankidetza lanak egingo ditu, eta eguneko sarrerak ez ezik bonuak ere kobratuko ditu, baldin eta kreditu txartelez ordaintzen badira.
c) Eskaintzaren programazioa eta jardueren ordutegiak aldatzea.
d) Kirol instalazioen kudeaketa eta mantentze lanak, nola eta ez dagozkion kontratistari.
e) Segurtasunaren ikuskapen gorena eta instalazio eta sarbideen kontrola.
g) Koordinazio tekniko orokorra.

- Ikasleen izen-emateak udaletxean egingo dira nahitaez, eta ezinbestekoa izango da ordenantzetan jasotako prezio eta tasa publikoak ordaintzea. Adjudikaziodunak izapidea erraztuko du, eta izena emateko eskabideak jasoko eta eramango ditu, denboraldiko bonuak kreditu txartelekin eta eguneko sarrerak dirutan kobratuz.

- Adjudikaziodunak egiaztatuko du, Udalarekin batera, betetzen direla zerbitzuetako eta zerbitzu horiek garatzeko instalazioetako erabilera arauak (bai euren aldetik, bai erabiltzaileen aldetik). Arau horiek Udal Kirol Zerbitzuaren Erregelamenduan daude jasota.

8. KONTRATUKO ARAUAK HAUSTEA ETA PENALIZAZIOAK

Arau hausteak arinak, astunak eta oso astunak izan daitezke. Honako hauek izango dira.

Arau hauste arinak:

- Plegu honetan ezarritako arau orokorrak eta espezifikoak ez betetzea, baldin eta ez badute arau hauste astuna edo oso astuna eragiten.

Arau hauste astunak:

- Kontratuaren xede den zerbitzua emateko moduari dagokionez, behin eta berriz ez betetzea Idiazabalgo Udalak emandako aginduak edo plegu honetan jasotakoak. Errepikatutzat hartuko da bi hilabetean bitan gertatzen denean ez-betetze hori; igerilekuen kasuan berriz, bitan hamabost egunen barruan.

- Osasun preskripzioak ez behatzea edo ez betetzea Alkatetzak emandakoak, egoera osasungaitzak, arriskutsuak edo publikoarentzat gogaikarriak saihestera bideratuak, baldin eta oso astuntzat ez badira hartzen.

- Udalaren akordioak, ebazpenak edo aginduak ez betetzea, zerbitzuaren xehetasunetan egindako aldaketei dagokienez.

- Ez betetzea ezarritako ordutegia.

- Udalak ikusitako gabeziak zuzentzeko ematen dituen aginduak arrazoirik gabe ez betetzea.

- Pleguan ezarrita baino langile gutxiago atxikitzea zerbitzura.

- Atxikitako langileek ez betetzea pleguan jasotako obligazioak.

- Txostenak, emaitzen kontuak eta pleguan jasotako bestelako informazioak aurkezteko obligazioa ez betetzea, edo Udalak eskatutako beste edozer ez betetzea.

- Sei hilabeteren barruan, bi arau hauste arin egitea (hilabetean, igerilekuen kasuan).

Arau hauste oso astunak:

- Espazio publikoak erabiltzen uztea, tasa edo prezio publikoa ordaindu gabe.

- Agerikoa izatea zerbitzua oker edo irregular ematen dela, betiere pleguan ezarritako

baldintzetan ez bada jotzen arau hauste astun edo arin gisa.

- Sei hilabeteren barruan, arau hauste astun bat egitea (hilabetean, igerilekuen kasuan).

**PENALIZAZIOAK.*

Arau hausteak honako isun hauekin penalizatuko dira:

- Arau hauste arinak:	125 eta 250 euro bitarte.
- Arau hauste astunak:	251 eta 1.000 euro bitarte.
- Arau hauste oso astunak:	1.001 eta 3.000 euro bitarte.

Hizkuntza irizpideei buruzko arau hausteak 5. klausulan daude zehaztuta.

Akordioa berehala betearaztekoa izango da. Efektibo egiteko, kontratistari ordainketa oso edo partzial gisa ordaindu beharrekotik kenduko dira edo, hala balitz, eratutako bermetik, aipatutako ziurtagirietatik kendu ezin denean.

Nolanahi ere den, penalizazioak ezarri aurretik enpresa adjudikaziodunak zer dioen entzungo da.

9. JARDUERA TALDEEN KALITATE MAILAK ETA RATIOAK

Udalak ezarriko ditu zerbitzuak emateko kalitate irizpideak. Adjudikaziodunak lagundu egingo du irizpide horiek ezartzen. Aldi berean, adjudikaziodunak erabiltzaileen ratioak proposatuko ditu talde eta jardueretarako, baina Udalak hartuko du azken erabakia.

10. KONTRATUAREN BALIOETSITAKO PREZIOA

Kontratuaren gehienezko aurrekontua 99.261,75 €koa da (%21eko BEZ-a barne), ondorengo banaketarekin: 82.034,50 € printzipalari dagokio eta 17.227,25 €, %21eko BEZari dagokiona. Lizitatzaileek kopuru horretatik behera dagoen eskaintza egin dezakete, bestelako kopuru zehatz bat proposatuz.

Kontratua banatzen da bi loteetan; lizitazaileek proposamenak aurkeztu ahalko dituzte lote baterako edo bietarako:
Lehenengo lotearen (Lote 1) zerbitzuaren gehienezko aurrekontua 75.248,74 €koa da (%21eko BEZ-a barne), ondorengo banaketarekin: 62.189,04 € printzipalari dagokio eta 13.059,70 €, %21eko BEZari dagokiona. Lizitatzaileek kopuru horretatik behera dagoen eskaintza egin dezakete, bestelako kopuru zehatz bat proposatuz. Zerbitzu-orduaren prezioa hau izango da:
—Lehenengo lotea (Lote 1): Kirol ikastaroen monitoreak, igerileku zerbitzua, aholkularitza teknikoaren zerbitzua eta Igarondoko Frontoiko eta Igerilekuko tabernen ustiaketa: 24,00 euro/ordua (BEZ gabe)

Ordu kopurua guztira 2.591,21 horas/urtean dira.

—1. zk.ko loteko. lizitatzaileek Igarondo Frontoiko eta Igerilekuko tabernen ustiapenagatik ustiaketa-kanon bat ordaindu beharko diote Idiazabalgo Udalari, gutxienez 1.000 €koa izango dena, (%21eko BEZ-a barne), ondorengo banaketarekin: 826,47 € printzipalari dagokio eta 173,53 €, %21eko BEZari dagokiona. Lizitazaileek zenbateko hori gainditu ahalko dute beren eskaintzetan.

Bigarren lotearen (Lote 2) zerbitzuaren gehienezko aurrekontua 24.013,03 €koa da (%21eko BEZ-a barne), ondorengo banaketarekin: 19.845,48 € printzipalari dagokio eta 4.167,55 €, %21eko BEZari dagokiona. Lizitatzaileek kopuru horretatik behera dagoen eskaintza egin dezakete, bestelako kopuru zehatz bat proposatuz. Zerbitzu-orduaren prezioa hau izango da: —Bigarren lotea (Lote 1): Izalbiraren monitore zerbitzua, Gimnasio 47 (makina eta muskulazio gela eta monitore zerbitzua 2,5 ordu/astean), KOZ-SOAF Jarduera Fisikorako Orientazio Zerbitzua eta aholkularitza teknikoaren zerbitzua: 34,58 euro/ordua (BEZ gabe) Ordu kopurua guztira 573,90 horas/urtean dira.

Loteen prezioak kalkulatzeko lote baikotzeko zerbitzuen prezioen eta orduen bataz bestekoa egin da.

Prezioaren barruan sartuta daude zerbitzua era egokian eta dagokion ordutegietan eskaintzeko egin beharko diren gastu guztiak, orokorrak izan, finantzieroak izan, enpresa-mozkinak, aseguruak, garraioa eta garraio-denborak, dietak, eta abarrekoak, tasak, BEZa. Horregatik Idaiazabalgo Udalak ez du aparteko ordainketarik bideratuko, goian zehaztutako kopurutik gorakoa.

Idiazabalgo Udalak, 4.000€ eta 1.000€ emango dizkie lehenengo lotearen (Lote 1) eta bigarren lotearen (Lote 2) zerbitzu-emaileei hurrenez hurren, mantenu eta produktu materialetarako mantenu-lanak egiteko helburuarekin, baldintza-agiri honetan azalduta geratzen den moduetan.

Kontratuaren balioetsitako prezioa guztira 293.793,40 eurokoa da.

11.- ORDAINKETA MODUA

Jarduerak fakturatzeko, hileko fakturak emango dira, eta ezinbestekoa izango da jarduera bakoitzaren zenbatekoa banakatzea, ordu kopuruak eta zerbitzua eman duen teknikaria ere zehaztuta. Fakturek Kultura Saileko udal zerbitzuen onespena beharko dute.

12.- KONTRATUAREN IRAUNALDIA

Plegu honetan zehaztutako lanak BI urtez egingo dira kontratua formalizatzen denetik aurrera. Urteko luzapen bakar bat egin daiteke, eta kontratuak, hala, gehienez ere hiru urte iraungo du.

13. ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURU POLIZA

Baldintza administratiboen pleguan zehaztuta bezala, adjudikaziodunak erantzukizun zibileko aseguru poliza bat sinatu eta aurkeztu beharko du (350.000 €). Poliza hori instalazioetan emandako zerbitzuei espezifikoki aplikatzekoa izango da, eta instalazio horiek erabiltzeko aldian gertatzen den edozer gorabehera edo halabehar estaliko ditu, baita langileen jardunbide profesionalak eragindakoak ere; halaber, zehaztuta egongo dira haietako bakoitzaren estalduraren arriskuak eta norainoko ekonomikoa, eta adjudikaziodunak urtero egiaztatu beharko du polizaren ordainketa.

14. ESLEIPENERAKO ETA HAZTAPENERAKO IRIZPIDEAK.

14.1.- Formula bidez zenbatetsi ezin diren balio juzku baten mendeko adjudikazio irizpideak (49 puntu). Honako kontzeptu hauek balioetsiko dira, eta hau izango da haietako bakoitzaren puntuazioa:

14.1.1. LEHENENGO LOTEA (LOTE 1)

Kirol Kudeaketa Plana. Lizitatzaileak kirol zerbitzuen kudeaketa plana aurkeztu beharko du. Plan horretan, aurkez litezkeen beste hainbat atal eta gai izateaz gain, gutxienez honako hauek bilduko dira balioesteko:

o Kirol ikastaroen proposamena, zerbitzuetako balizko ikastaro baten plangintzaren adibidearekin. **16,5 puntu**. Kirol programa bat eskatzen da 2019-2020 ikasturte osorako. Programa hori teorikoa izango da, eta ikastaro, kirol jarduera edo zerbitzu bakoitzeko saioak antolatzeko proposamen bat egingo da. Hori guztia egiteko beharrezko jarduerak, helburuak, metodologia eta plangintzak kontuan izango dira, baita jarduera edo zerbitzu bakoitzerako proposatutako asistentzia kontrolatzeko eredua ere.

o Igarondo igerilekurako zerbitzu eskaintzaren proposamena. **16,5 puntu**. Besteak beste, giza baliabideen antolaketa proposamena, pleguan bildutako funtzio guztiak betetzeko, eta autokontrol planaren proposamena.

o Kultura Sailarekin koordinatzeko prozesuak eta Aholkularitza Teknikoa: **8 puntu**. Enpresa adjudikaziodunak txosten bat aurkeztu beharko du, giza baliabideen koordinazioaren eta kudeaketaren berri emanez. Esandako txosten horretan, adieraziko da zer langile dituen, baita antolaketa, kontrol sistemak eta zuzenketa neurriak ere. Horrez gain, antolaketako eredu bat aurkeztu beharko da (txosten eredu bat), honako hauek bilduz: koordinazio bilerak, bilera motak, fakturazio sistemak eta abar, eta Idiazabalgo Udalari aholkularitza teknikoaren zerbitzu-eskaintzarako proposamena.

o Kirol ikastaroen zerbitzua, Igarondo Igerilekuen zerbitzua eta Igarondoko Frontoia eta Igerilekuen taberna-ustiaketarako proposamena, gainontzeko kirol zerbitzuekiko (Bigarren lotean zehaztutakoak): **4 puntu.**

o Hondakinak kudeatzeko ingurumen proposamenak, pleguetan eskatutakoen osagarriak: **4 puntu.**

14.1.2. BIGARREN LOTEA (LOTE 2)

Kirol Kudeaketa Plana. Lizitatzaileak kirol zerbitzuen kudeaketa plana aurkeztu beharko du. Plan horretan, aurkez litezkeen beste hainbat atal eta gai izateaz gain, gutxienez honako hauek bilduko dira balioesteko:

o KOZ-SOAF (Kirol Orientazio Zerbitzua – Servicio de Orientación para la Actividad Física) zerbitzu berrirako eskaintza proposamena: **22 puntu**. Faseen garapen proposamena aurkeztuko da. Gutxi gorabehera, aurreikuspena da urrian zer behar dauden detektatzea eta aktiboen mapaketa egitea; azaroan beharrizanen diagnostikoa eta zerbitzuaren diseinua egitea; eta abenduaren 1etik aurrera, zerbitzua irekitzea.

o Gimnasioa 47 makina eta muskulazio aretoaren monitore zerbitzuaren antolaketa proposamena eta Izalbira antolatzeko proposamena: 1**5 puntu**.

o Kultura Sailarekin koordinatzeko prozesuak eta Aholkularitza Teknikoa: **8 puntu**. Enpresa adjudikaziodunak txosten bat aurkeztu beharko du, giza baliabideen koordinazioaren eta kudeaketaren berri emanez. Esandako txosten horretan, adieraziko da zer langile dituen, baita antolaketa, kontrol sistemak eta zuzenketa neurriak ere. Horrez gain, antolaketako eredu bat aurkeztu beharko da (txosten eredu bat), honako hauek bilduz: koordinazio bilerak, bilera motak, fakturazio sistemak eta abar, eta Idiazabalgo Udalari aholkularitza teknikoaren zerbitzu-eskaintzarako proposamena.

Gehienez ere, formula bidez zenbatetsi ezin diren balio juzku baten mendeko adjudikazio irizpideetan 49 puntu lor daitezke lote bakoitzeko.

Udalak hutsik aitortu ahal izango du lizitazioa, aurkeztu direnek ez baldin badituzte betetzen jarduera proiektuetan beharrezko gutxieneko kuantitatibo eta kualitatiboak, kontratuaren xede diren zerbitzuak gauzatu ahal izateko, eta, ondorioz, ez badituzte gutxienez **20 puntu** eskuratzen atal honetan. Kasu horretan, ez da balioetsiko eskaintza ekonomikoa.

14.2. Formularen mende dauden adjudikazio irizpideak (51 puntu)

14.2.1. LEHENENGO LOTEA (LOTE 1)

14.2.1.1. Kirol zerbitzuen prezioa: **45 puntu gehienez.**
Eskaintza ekonomikoaren balioespena aurkeztutako eskaintzaren gainean.
Lehengo lotearen (lote 1) kirol zerbitzuak: 23,83 €/ordu, BEZ gabe.

14.2.1.2. Igerilekuko eta pilotalekuko taberna zerbitzuak ustiatzeko kanona: **6 puntu gehienez**. Balioetsi egingo dira proposatutako kanonaren gaineko gehikuntzak.
Igerilekuko eta pilotalekuko taberna zerbitzuak ustiatzeko kanona (urtekoa): 826,45 €, BEZ gabe.

14.2.2. BIGARREN LOTEA (LOTE 2)

14.2.1.1. Kirol zerbitzuen prezioa: **51 puntu gehienez.**
Eskaintza ekonomikoaren balioespena aurkeztutako eskaintzaren gainean.
Bigarren lotearen (lote 2) kirol zerbitzuak: 34,58 €/ordu, BEZ gabe.

Eskaintza ekonomikoaren balorazioa egingo da aurkeztutako eskaintzaren gainean BEZ gabe.

Gehienez ere, formularen mende dauden adjudikazio irizpideetan 51 puntu lor daitezke lote bakoitzeko.

15. AZPIKONTRATATZEKO AUKERA:

Bai.

16. LOTEKAKO ZATIKETA

Bai. Bi lote:

1) Lehenengo lotea (lote 1): Kirol ikastaroak, Igarondo Igerileku zerbitzua, Igarondoko Frontoiko eta Igerilekuko tabernen ustiaketa eta aholkularitza teknikoa
2) Bigarren lotea (lote 2): KOZ-SOAF Orientazio Zerbitzua, Izalbira, Gimnasioa 47 eta aholkularitza teknikoa

Idiazabalen, 2019ko abuztuaren 12an

KULTUR TEKNIKARIA.- Beatriz Mena Díez